



Fitxa didaktikoa

Pentsatu nola babes zaitezkeen Interneten!

Zure lagunak kontatu dizunez...

Gelakoek berriz ere nire argazki bat argitaratu dute...

**Badakizu nor izan den... beti da berbera.
Eta bere lagun guztiek barre egin didate komentarioetan!**

**Nazkatuta nago, eta gelditzeko mila
aldiz esan diedan arren, ez dute egiten...**

**Ez dakit zer gehiago egin dezakedan.
Blokeatu arren, moldatzen dira beren
"bromatxoak" niregana irits daitezen...
Zer egin dezaket?**

**Zer aholku eman diezaiokezu?
Erabaki-zuhaitzak lagun diezazuke**

Zure lagunak kontatu dizunez...

**Jakin dut norbaitek Instagram-profil bat sortu duela soil-soilik
niri buruzko argazkiak argitaratzeko...**

**Izatez muntaiak dira, ez dira benetako argazkiak.
Baina ni barregarri uzteko erabiltzen ari da...**

Eta argazkiak komentatu eta gustatzen zaizkiela esaten duten jarraitzaileak ditu!

**Ez dakit nork egin ote duen...
Baina ez dut onartuko niri iseka egiten jarraitzea.
Zer egin dezaket?**

**Zer aholku eman diezaiokezu?
Erabaki-zuhaitzak lagun diezazuke**

is4k INTERNET
SEGURA
FORKiDS

Zalantzak dituzu? Aurkitu informazio gehiago eta
gure laguntza-ildoan hemen: www.is4k.es





Fitxa didaktikoa

Pentsatu nola babes zaitezkeen Interneten!

ERABAKI-ZUHAITZAK IKASGELAN ERABILTZEKO ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

- Bi foliotan inprima dezakezu erabaki-zuhaitza, puntu-lerrotik lotuta, eta ikasgelan ikusteko moduan jarri, ikasleentzat eskuragarri egon dadin.
- Erabili fitxa honetako elkarrizketak ikasleak egoeran jarri ahal izateko, horrelako arazoak aurkituz gero zer erabaki hartuko luketen hausnar dezaten.
- Anima itzazu erantzun bakoitza justifikatzera:
Zergatik hautatu duzu aukera hori?
Zer ondorio izango lituzke beste moduren batean jarduteak?

Osatu saioa ikasitakoa bereganatzeko beste jarduera batzuekin: ideia batzuk proposatzen dizkizugu!

- Eskolako ziberjazarpenari buruzko eztabaida antolatzea: *"jabetzen gara ziberjazarpenak eragiten duen kalteaz?"*
- Horma-irudi bat sortzea, taldeka, ikaskideen arteko ziberjazarpenaren aurrean jarduteko aholkuak sormenez irudikatzeko.
- Interneten ikertzea zergatik jazartzen dioten gazteek ikaskide bati, eta taldeka prestatzea horri buruzko gogoeta, ikasgelan partekatzeko.
- Interneteko egunkarietan bilatzea ziberjazarpenaren ondorioak jasan dituzten gazteen kasu errealei buruzko albisteak.

Halaber, gure **baliabideak** eta **material didaktikoak**
erabil ditzakezu jarduera zabaltzeko; hemen
dauzkazu: www.is4k.es

is4k INTERNET
SEGURA
FORKiDS

Zalantzak dituzu? Aurkitu informazio gehiago eta
gure laguntza-ildoak hemen: www.is4k.es

